

HNIBBILOtik eratorritako eskakizunak ezartzeko prozesua hasteko eta Euskadin antolatutako kirolean haurren eta nerabeen ongizatearen kultura sustatzen jarraitzeko protokoloa eta tresna-kutxa

1. SARRERA

Hemen aurkezten ari garen dokumentua duela gutxi 8/2021 Lege Organikoa onartzearen ondorioz sortu den lankidetza-prozesu baten emaitza da —*8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena (aurrerantzean HNIBBILO)*—, eta, honen bitartez, erantzuna eman nahi zaie EAEko kirolaren eremuan ezarri diren eskakizunei (ikusi **1. koadroa**). Proiektu honen buruak Eusko Jaurlaritzako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietako kirol arloko zuzendaritzak izan dira, baina Euskal Autonomia Erkidegoan eremu horretan erreferentzia diren erakunde publiko eta pribatuen lankidetza ere izan dute (hala nola Unicefen EAEko Batzordea, Athletic Club fundazioa edo UPV/EHU, besteak beste).

1. koadroa *Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren IX. kapitulua: Kirolaren eta aisiaren eremua* (hemendik hartu da: <https://www.boe.es/boe/dias/2021/06/05/pdfs/BOE-A-2021-9347.pdf>).

IX. KAPITULUA

Kirolaren eta aisiaren eremua

47. artikulua. *Kirolaren eta aisiaren eremuko indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloak.*

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduteko protokoloak arautuko dituzte. Protokolo horiek kirolaren eta aisiaren eremuan ingurune seguru bat eraikitzeko jarduketak bilduko dituzte, eta nahitaez bete beharko dira kirolaren eta aisiaren eremuan haurren eta nerabeen kontra gerta daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko.

Kirol- eta aisia-jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu beharko dira protokolo horiek, titulartasuna edozein dela ere, eta, nolanahi ere, Kirol Errendimendu Handiko eta Kirol Teknikakazioko Zentroen Sarean, kirol-federazioetan eta udal-eskoletan.

48. artikulua. *Adingabeekin kirol- edo aisia-jarduerak egin ohi dituzten erakundeak.*

1. Adingabeekin kirol- edo aisia-jarduerak egin ohi dituzten erakundeek betebeharrak hauek dituzte:

a) Administrazio publikoek kirolaren eta aisiaren eremuan hartutako eta aurreko artikuluan aipatutako jarduteko protokoloak aplikatzea.

b) Monitorizazio-sistema bat ezartzea adingabeen babesari lotutako aurreko protokoloak betetzen diren ziurtatzeko.

c) Adingabeak babesteko ordezkaria izendatzea, adingabeek harengana jo ahal izan dezaten beren kezkak adierazteko. Ordezkari hori arduratuko da ezarritako protokoloak hedatzeaz eta betearazteaz, bai eta dagozkion komunikazioak hasteaz ere haurren edo nerabeen kontrako indarkeria-egoeraren bat hauteman den kasuetan.

d) Behar diren neurriak hartzea kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisia ez daitezen izan diskriminazio-gune adina, arraza, desgaitasuna, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo genero-adierazpena dela eta, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela eta. Horretarako, haur eta nerabeekin nahiz haien familiarekin eta profesionalekin lan egingo da, irainak eta adierazpen laidogarri eta diskriminatzailerak erabiltzeari uko egitea lortzeko.

e) Haurren eta nerabeen partaidetza aktiboa sustatzea haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.

f) Kirol-erakundeen eta gurasoen edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituztenen arteko harremanak eta komunikazioa sustatzea eta sendotzea.

2. Halaber, 5. artikuluan aipatzen den prestakuntzaz gain, aipatutako erakundeetan lan egiten duten pertsonak berariazko prestakuntza jaso beharko dute desgaitasuna duten haur eta nerabeen trebeziei eta gaitasunei behar bezala erantzuteko, haien kirol inklusiboa sustatu eta garatzeko.

Prozesu horren emaitzak kontuan izan beharko du kirolaren eta haurren eskubideen arloei dagokienez EAEn indarrean dagoen legeria. Ildo berean, Haurren EAEko lege berria, Haurren kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia eta Kirolaren lege berria oinarritzko elementuak izango dira tresna-kutxa bat lortzeko, eta horrela, legezko eskakizunei erantzuteaz gain, bermatu ahal izango da haur eta nerabeek parte hartzeko Euskadin antolatzen diren kirol-testuinguruak ongizatekoak eta ingurune segurukoak izango direla.

2. TRESNA-KUTXA HONEN PREMISA ETA KONTZEPTU NAGUSIAK

Premisa hauxe izan da lan hau garatzeko oinarria: haurtzaroan eta nerabezaroan kirola egitea gorputz-hezkuntzako oinarritzko funtzioa da osasunerako eta aisialdirako (nahiz eta, batzuetan, beste jarduera batzuetarako bilakaera izan dezakeen kirolak, lehiara edo profesionalizaziora bideratuta, esaterako).

Haur edo nerabe batek garapen osoa izan dezan maila fisiko, psikologiko eta emozionalean, ezinbestekoa da ingurune seguru eta babesleetan haztea. Izan ere, segurtasunik gabe eta beldurrez bizi izan diren esperientzia errepikatuek eta bereziki bortitzek oso ondorio kaltegarriak izaten dituzte haur eta nerabeen garapenean.

Kirola dimentsio garrantzitsua da haurren eta nerabeen bizitzan, haien osasunean lagundu dezakeelako, eta, horregatik, ingurune seguru eta babesle batean garatu behar da. Kirolaren eremuan babesa sentitu ahal izateko, ezinbestekoa da haurrek eta nerabeek kirola egiteko erabiltzen dituzten espazioak ingurune seguru eta babesleak direla bermatzea.

Ingurune seguru eta babeslea dela esango dugu baldin eta espazio horretan tratu psikologiko eta emozional ona ematen bada, ez badago indarkeriarik, abusurik ez esplotaziorik, eta pertsonen jokaera giza eskubideenganako errespetuan oinarritzen bada. Haur eta nerabeentzat, ingurune segurua izango da baldin eta pertsona heldu guztiek, espazio horretan, haurren edo nerabearen interes gorenaren eta giza eskubideen errespetuaren zerbitzura jarduten badute beti. Giza eskubide horiek Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko konbentzioan daude jasota. Ingurune segurua eta babeslea, beraz, ezinbesteko baldintza da haur eta nerabe guztiek garapen osoa eta babesa izateko duten eskubidea bermatzeko.

Ingurune seguru hori eraikitzeko, funtsezkoa da kirol-sistemaren barruko eta kanpoko eragileak partekatzen duten erantzukizunaz jabetzea. Ildo horretan, Haurren kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategiak, gaiari buruzko ikuspegi holistikoa emateaz gain, azpimarratzen du lan egin behar dela familiek, emakumeek eta gizonek, erakundeek, eragile ekonomiko eta sozialek, komunikabideek eta gizarte osoak rol proaktibo eta arduratsua har dezaten haur eta nerabeen eskubideak sustatu eta babesteko. Hala, erantzunkidetasunak esan nahi du guztiek dutela ardura haurren eta nerabeen zaintzan, eta eragile guztiek jakin behar dutela zer araudi dagoen indarrean — bakoitzak bere rola, eskumenen eta zereginen esparruan — eta zer printzipio eratortzen den Haurren eskubideei buruzko konbentziotik.

HNIBBILOtik eratorritako eskakizunei heltzeko funtsezko elementuetako bat da bertako kontzeptu nagusiak argitzea, labor-labor bada ere. Kontzeptu hauek, hain zuzen ere: *adingabeak, kirola, indarkeria* eta *haurren babesa* kirolean.

i. Adingabeak eta eskubidedun subjektuak

Estatuko ordenamendu juridikoan, Espainiako Konstituzioaren 12. artikulua arabera, “Espainiarrak adin nagusiko dira hemezortzi urte betetzean”. Hala, egia bada ere adin-tarte zabal horri bereiz heldu behar zaiola haur eta nerabeen garapen-etapa bakoitzean, ezin da ahaztu, termino soziojuridikoetan, eta batez ere haur eta nerabeen eskubideei dagokienez, adingabe gisa kalifikatze horrek berekin dakarrela, adingabe izate hutsagatik, babes eta zaintza bereziak behar dituztela garapen-etapa guztietan.

Ildo horretan, Haurren eskubideei buruzko konbentzioaren 1. artikulua aipatu behar da, bertan esaten baita haurra dela hemezortzi urtetik beherako pertsona oro. Gogorarazi behar da, horren arabera, haur eta nerabeak ez direla subjektu pasibo hutsak, baizik eta eskubidedun subjektuak, horrek termino juridikoetan dakarren guztiarekin, baina baita termino sozialetan dakarrenarekin ere, hau da, partaidetza politikoa izatea bizitza publikoan, oro har, eta kirol-erakundeetan, zehazki.

Hala eta guztiz ere, adingabeek parte hartzen duten edozein ingurunetan, baita kirol-ingurunean ere, funtsezkoa da kontuan hartzea beti eskubidedun subjektutzat hartu behar ditugula eta adingabeen interes gorena gailendu behar dela.

ii. Kirolaren zentzua eta testuingurua mugatuz

Kirolaren kontzeptua zehazterakoan, gure egiten dugu lan hau egiteko erreferentziazko dokumentuetako batean erabili den definizio eta mugaketa kontzeptuala, CASES proiektuan erabilitakoa, hain zuzen ere, kirolean edo kirolek kanpo, Espainian, haurren eta nerabeen kontrako pertsonen arteko indarkeriaren

prebalentzia eta ezaugarriak aztertzen direla bertan. Lan horretan, gurean bezala, hauxe da ardatza:

[...] Kirol antolatua, hau da, olgetarako edo lehiarako egiten den kirol-jarduera oro, boluntarioa dena, eskola-ikasketen planetik kanpoko klub edo erakunde baten testuinguruan egiten dena eta pertsona heldu baten bidezko entrenamendua edo heziketa dakarrena, eskolan antolatzen diren curriculumetik kanpoko kirol-jarduerak eta kanpamentuak barne.

Kanpoan uzten dugu gorputz-hezkuntza, hezkuntza-sektoreari baitagokio curriculumeko gorputz-hezkuntzako eskolen gobernantza, eta ez kirol-sektoreari. Kanpoan uzten ditugu, halaber, kirol-jarduera informalak edo noizbehinkakoak (adibidez, bizikleta-ibilbideak, jogginga eta igeriketa autokudeatuak) eta beste edozein jarduera fisiko informal (adibidez, txakurra paseatzea edo lorezaintza). (17. or.)

iii. Zer esan nahi dugu haurren eta nerabeen kontrako indarkeria diogunean?

Tresna-kutxa honetan erabiltzen dugun indarkeriaren kontzeptua (edo, hobeto esanda, pluralean, indarkerien kontzeptua) mugatzeko, kontuan hartu ditugu dagoeneko aipatu dugun CASES azterlanean, *Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategian* eta gaiari buruz egin diren berrikuspen-lanetan (ALDAZ, 2020) garatutako kontzeptualizazioak, EAEko kirol-errealitatera egokituta.

Hala, *Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategian* ezarritakoaren arabera (15. or.), haur eta nerabeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa da, desberdintasunean oinarritzen diren harremanetan ematen diren botere-gehiegikeriek sortuta. Min fisikoaren eta nahita egindakoaren formarik esplizituenak eta fisikoak ez diren formak eta min egiteko asmorik ez dutenak hartzen dituzte kontuan.

Giza eskubideen urraketa hori honela definitzen du HNIBBILOk: “Indarkeria da adingabeei eskubideak eta ongizatea kentzen dieten ekintza, omisio edo tratu arduragabe oro, haien garapen fisikoa, psikikoa edo soziala mehatxatu edo oztopatzen badute, modua eta bitartekoa edozein dela ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez eginikoak barne, indarkeria digitala batez ere”.

Eta gehitzen du: “Nolanahi ere, indarkeria dira tratu txar fisikoa, psikologikoa edo emozionala; zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak; axolagabekeria edo tratu arduragabea; mehatxuak; irainak eta gezurrak; esplotazioa, sexu-indarkeria barne; galbidean jartzea; haur-pornografia; prostituzioa; eskola-jazarpena; sexu-abusua; ziberjazarpena; genero-indarkeria; genitalen mutilazioa; gizakien salerosketa, helburua edozein dela ere; behartutako ezkontza; haurren ezkontzak; baimenik gabe pornografiara sartzea; sexu-estortsioa; datu pribatuak publikoki zabaltzea eta familian indarkeriazko edozein portaera egotea”.

Definizio hori oinarri hartuta, eta CASES proiektuan ezarritako pertsonen arteko indarkeriaren kategoriak haurren eta nerabeen kontrako balizko indarkerien beste bi eremurekin zabalduta, kirolean haur eta nerabeak babesteko mekanismoak ezartzerakoan kontuan hartu behar diren indarkerien zerrenda azalduko dugu jarraian:

1. taula Indarkeria-eremuen sailkapena eta indarkeria-eremu horien adibideak, kirolarekin lotuta (geuk egin dugu)

KIROLAREKIN LOTUTAKO INDARKERIA-EREMUEN SAILKAPENA		KIROLAREKIN LOTUTAKO INDARKERIEN ADIBIDEA
Nork bere buruari egindako indarkeria		Suizidioa
		Suizidio-saiakerak eta -ideiagintza
		Nork bere burua zauritzea
		Elikadura-nahasmenduak
		Norberak ezarritako gehiegizko entrenamendua
		...
Pertsonen arteko indarkeria (CASES)	Arduragabekeria	Babes egokirik ez ematea
		Zainketa medikorik ez ematea
		Ez ikuskatzea
		Ekipamendu egokirik ez ematea
		Ikasketak uztera behartzea
		Seguruak ez diren egoeretan entrenatzera eta lehiatzera behartzea
	...	
	Indarkeria psikologikoa	Umiliatzea
		Itxurari buruzko kritikak egitea
		Kasurik ez egitea, baztertzea
		Ahaleginak ez goraipatzea
		Mehatxatzea, hitzez abusatzea
		Lortu ezin den gehiegizko mailako errendimendua izatera behartzea
	...	
	Indarkeria fisikoa	Ariketak egitera behartzea zigor gisa
		Behartutako inimiziazio-errituak
		Elikadura-osagarriak hartzea behartzea
		Lesionatuta egonda edo kaltegarria izan daitekeen intentsitatearekin entrenatzera eta lehiatzera behartzea
		Eraso fisikoa
		...
	Sexu-indarkeria, kontakturik gabe	Iruzkina sexualak
		Begirada sexualak
		Irudi sexualak ikustera behartzea
		Irudi sexualak ekoiztera behartzea
		Irudi sexualak partekatzea
		Biluzterak behartzea
		Exhibizionismoa, aurrez aurre edo online
		Sexu-jokoak/inimiziazio-errituak (kontakturik gabe)
	...	
	Sexu-indarkeria, kontaktuarekin	Musu ematea, behartuta
		Sexu-ukituak, behartuta
		Genital-ukituak, behartuta
		Aho-sexua, behartuta
		Sarketa, behartuta
		Kontaktu bidezko inimiziazio-errituak, behartuta
	...	
Testuinguruko indarkeria (normatibo-estrukturala)		Aurrekontu-banaketa desberdina (generoa, adina, ...-ekitatea-)
		Haurrak babesteko araudirik ez izatea (modalitate arriskutsuak, egokitu gabeak...)
		Prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako kanpainarik ez izatea
		Prestakuntzarik ez izatea haurren babesari buruzko gaietan
		Instalazio desagokiak
		Hasiberriari iseka egiteko kultura
		Adingabeen profesionalizazioa (ezkutuko kontratuak) – Haurren lana
		Adingabeen salerosketa
		...

Era berean, *Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategian* eta *Euskadin kirolarekin lotura duen indarkeria modu partekatuan kudeatzeko talde-lanean egindako diagnostikoa eta proposamenak* (Aldaz eta Ispizua,

2018)¹ izeneko aurretiazko lanean planteatutakoaren ildotik, ikuspegi sistemiko eta erantzukidetasuneko bat hartu dugu kirol-sistemako eragile guztiek haur eta nerabeen kontrako indarkeria guztiak prebenitzeko. Hala, pertsonen arteko indarkeriari dagokionez, inplikaturako alderdien arabera garatu eta egokitu daiteke sailkapena (berdinen arteko indarkeria, entrenatzailearen eta haur edo nerabe kirolariaren artekoa, senideen eta haur edo nerabe kirolariaren artekoa, eta abar).

i. Haurrak kirolean babestea

Duela gutxira arte, "berez" positiboa den ingurunetzat hartu izan da kirol-sistema, eta uste izan da ez dela inolako ekintza espezifikorik behar sistemaren berezko ontasun horiek azaleratzeko, kirol-jarduera bera baino ez. Arlo horretan berriki izandako garapena ez da "kasualitatea". Aitzitik, eskandaluz betetako aurrekariak markaturako garapen historiko bati erantzuten dio (GARRATT, PIPER eta TAYLOR, 2013), eskandalu horien erdigunea laurogeita hamarreko hamarkadan Erresuma Batuan gertatu ziren kasu bereziki larri eta mediatiko batzuetan dagoela.

Hasiera batean sexu-abusuen eskandalu horiek bultzatu bazuten ere (arazo horrek gainerako agenda politikoa baldintzatzen jarraitzen du oraindik), haurrak kirolean babesteko "mugimenduak" adingabeentzako beste kalte batzuk ere hartu ditu barnean, hala nola abusu fisikoa eta psikologikoa, abandonatzea eta inimiziazio-erritu kaltegarriak, horrelakoen ebidentziak pilatu diren heinean (BRACKENRIDGE, FASTING, KIRBY eta LEAHY, 2010).

EUROPAKO BATZORDEAK berriki egindako azterlan batek (2019) gaiari buruz abian jarri diren proiektuen aniztasuna egiaztatzen zuen. Hala ere, proiektu horiek garapen eta hedapen desberdina izan dute, eta nabarmentzekoa da, batez ere, *Start To Talk Initiative* proiektua (kirolean adingabeen kontrako sexu-abusuak desagerraraztera bideratua, eta *Pro Safe Sport* eta *Pro Safe Sport+* proiektuen ondorengoa), Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak lankidetzan egindakoa. Beste proiektu hauek ere nabarmentzeko modukoak dira:

1. "Prevention of sexualized violence in sports – Impulses for an open, secure and sound sporting environment in Europe"
2. VOICE
3. Sport Respect Your Rights
4. Safeguarding Youth Sport
5. Leveraging sport to tackle gender inequalities
6. I-Protect in sport
7. Sport Against Violence and Exclusion (SAVE)
8. Child Abuse in Sport: European Statistics CASES
9. POINTS Project
10. SPORTPARENT EU Project
11. iCoachKids

12. Get Addicted to Sport Values

Kasu gehienetan, azpimarratzekoa da garrantzi handia ematen zaiela sexu-abusuei eta abusu fisikoei eta, aldiz, garapen txikiagoa dutela indarkeria psikiko eta emozionalari dagokienez (EUROPAKO BATZORDEA, 2019), bai Europa-mailan, oro har, bai Espainia-mailan.

Euskadin, ekimen eta proiektu batzuk ditugu haurrak kirolean babestearekin lotuta:

- [Zure taldekoak gara](#)
- Athletic Cluben Aterpe programa.
- Besteren bat...

2.B ZERGATIK GARATU EUSKADIKO KIROLEAN HAUR ETA NERABEAK BABESTEKO PROTOKOLOAK?

Zalantzarik gabe, galdera horri eman dakioken erantzunetako bat da legeak hala eskatzen duelako garatu behar direla protokolo horiek eta gainerako ekintzak. Hala ere, legezko betebeharrak horretatik harago, tresna-kutxa horren helburua da gaiaren gaineko kontzientzia eta erantzunkidetasuna sustatzea, aurrera egiten jarraitu ahal izateko haur eta nerabeek kirolean ongizatea izatea izan dadin lehentasuna. Eta jarraitzea esaten dugu, eta ez hastea, uste dugulako kirol-sistema ongizateko ingurunea izan dela haur eta nerabe askorentzat, nahiko genukeen sistematikotasun eta formaltasunarekin ez bada ere, CASES azterlanaren argitan. Izan ere:

Laginaren % 82k esan zuen kirolean izandako esperientzia orokorra "ona" (% 41) edo "oso ona" (% 41) izan zela. Laginaren % 5 baino gutxiagok adierazi zuen kirolean izandako esperientzia orokorra "txarra" (% 4) edo "oso txarra" (% 0,7) izan zela (10. or.).

Hala ere, azterlan beraren emaitzetan sakontzean, eta indarkeriaren sailkapen konplexuago baten arabera, ikusten da lanean jarraitu behar dela kirol-testuingurua gero eta hobea izan dadin; izan ere, kirolari buruzko pertzepzioa hain positiboa izanda ere, pertsonen arteko indarkerien prebalentzia % 70ekoa da oraindik *indarkeria psikologikoaren* kasuan, % 43koa *indarkeria fisikoaren* kasuan, % 36koa *kontakturik gabeko sexu-indarkeriaren* kasuan, % 34koa *arduragabekeriaren* kasuan eta, azkenik, % 20koa *kontaktuarekin egindako sexu-indarkeriaren* kasuan. Egiaztatu beharko litzateke ea datu horiek bat datozen EAEko testuinguru zehatzarekin, baina, zalantzarik gabe, baliagarriak dira arazoaren dimentsio kuantitatibo eta kualitatiboak buruzko gutxi gorabeherako ideia bat hartzeko.

Argi dago, era berean, entrenatzaileek eta kirol-arloko beste eragile batzuek haur eta nerabeekin duten hurbiltasuna eta haiekin ematen duten denbora kontuan hartuta, kirola testuinguru ezin hobea dela beste ingurune batzuetan sor litezkeen indarkeriak hautemateko eta eraginkortasunez prebenitzeko.

3. NAZIOARTEKO BABESAK ERREFERENTZIA-ESPARRU GISA

International Safeguarding Children in Sport Working Group taldearen arabera, 8 dira Adingabeentzako Kiroleko Nazioarteko Babesak, hurrek kirol-ingurune seguruez gozatu ahal izateko (RHIND eta OWUSU-SEKYERE, 2018: 42-49. Itzulpena geurea da):

1. *Araudi propioa garatzea*. 18 urtetik beherakoentzako kirol-jarduerak eskaintzen dituen edo horien ardura duen edozein erakundek babes-politika bat izan behar du. Asmo-adierazpen horrek kirolean parte hartzen duten adingabeak edozein kaltetatik babesteko konpromisoa erakusten du, eta prozedurak garatzeko esparru bat ematen du.
2. *Hautemate- edo zalantza-kasuetan erantzuteko prozedura bat garatzea*. Prozedurek erakundearen politika ezartzeko beharrezkoak diren prozesu operatiboak deskribatzen dituzte, eta gida argi bat eskaintzen dute, urratsez urrats azalduz zer egin behar den egoera bakoitzean. Rolak eta erantzukizunak argitzen dituzte, baita komunikazio-ildoak ere. Edozein kexa edo kezka prozesatzen lagunduko duten eta indarkeriaren biktimei lagunduko dieten sistema eraginkorrak behar dira. Dauden sistemetan oinarritu behar du, eta sistema eta legeria nazional garrantzitsuenei dagokienez duen zeregina ulertu.
3. *Aholkularitza eta babesa*. Erakundeak beharrezko ekintzak egin ditu funtsezko informazioa eta beharrezko babesa emateko adingabea babesteko ardura dutenei. Haur eta gazteei jakinarazten die nora joan behar duten laguntza eta babesa jasotzeko.
4. *Adingabearentzako arriskua gutxitzea*. Adingabeentzako arriskuak ebaluatzeko eta gutxitzeko neurriak garatzea.
5. *Jokabide-gidak egitea*. Portaera-estandar onargarri bat zer den deskribatzeko eta egungo jardunbide egokiak sustatzeko jokabide-gidak.
6. *Kontratazioa, prestakuntza eta komunikazioa*. Pertsona egokiak kontratatzea, babesaren inguruan beharrezkoak diren trebetasunak eta komunikazioa garatzeko eta mantentzeko aukerak sortuz.
7. *Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea*. Erakundeak egiten dituen ekintzak, erakunde elkartuek adingabeak babesteko neurriak har eta ezar ditzaten eragiteko eta sustatzeko.

8. *Monitorizazioa eta ebaluazioa*. Betetzearen eta eraginkortasunaren etengabeko monitorizazioa, talde garrantzitsu guztiek esku hartzen dutela.

Era berean, beste 8 mugarri ezarri ziren CHILDREN akronimoaren azpian (ingelesezko terminoen inisialengatik), ezinbestekotzat jotzen zirenak kirol-babesak errazteko (ikus **2. taula**, jarraian):

2. taula. Kirol-babesak arrakastaz ezartzen laguntzeko mugarriak (hemendik hartuta: MOUNTJOY *et al.*, 2015: 3. Itzulpena geurea da).

Mugarria	Deskribapena
(Cultural sensitivity) Sentsibilitate kulturala	Testuinguruko kultura- eta gizarte-arauetara egokitu behar dira babesak
(Holistic) Holistikoa	Erakunde baten alderdi guztietan integratu behar da babesa, elementu gehigarri bat izan beharrean
(Incentives) Pizgarriak	Arrazoi argi bat egon behar da pertsonen eta erakundeek babesen alde lan egin dezaten
(Leadership) Lidergoa	Lidergoaren funtsezko roletan lan egiten dutenek argi egin behar dute babesen alde
(Dynamic) Dinamikoa	Babes-sistemak etengabe berrikusi eta egokitu behar dira haien garrantziari eta eraginkortasunari eusteko
(Resources) Baliabideak	Babesak ezartzeko, baliabide egokien laguntza izan behar da (adibidez, giza baliabideak, denbora-baliabideak eta finantza-baliabideak)
(Engagement) Interesdunak erakartzea	Ikuspegi demokratiko bat hartu behar da, kirola egiten dutenen eta haien inguruko (guraso, entrenatzaile, komunitateko lider...) ahotsak erakarri eta entzuteko
(Networks) Sareak	Erakunde batek babesetarako egingo duen aurrerapena indartu egingo da baldin eta sareak ehuntzen baditu beste erakunde batzuekin

Erreferentzia-esparru hori buruan, jarraian, EAEko kirol-sistamarako protokolo-proposamena aurkeztuko dugu.

4. ERANTZUKIDETASUNEZKO BEGIRADA LANDUZ, KIROLEAN HAUR ETA NERABEAK BABESTEKO INGURUNE SEGURUA ERAKITZEKO

Kirol-eremuari dagokionez HNIBBILOn ezarritako eskakizunen arabera,

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduteko protokoloak arautuko dituzte. Protokolo horiek kirolaren eta aisiaren eremuan ingurune seguru bat eraikitzeke jarduketak bilduko dituzte, eta nahitaez bete beharko dira kirolaren eta aisiaren eremuan haurren eta nerabeen kontra gerta daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, goiz hautemateko eta horietan esku hartzeko. **(47. artikulua)**

Lege-agindu hori ez da erantzukizun berria, ez eta erantzukizun aginduzko eta itxia ere. Aitzitik, azaldu egiten du zeregin bat formalizatu, sistematizatu eta antolatu beharra dagoela, kirolean haur eta nerabeak babesteko zeregina, hain zuzen ere. Izan ere, haur eta nerabeekin lan egiten duten EAEko kirol-sistemako eragileek, gehienetan, modu informal eta boluntarioan egiten zuten hori, edo, are gehiago, oharkabean.

Agindu horren helburua da HNIBBILOk ezartzen duen jakinarazpen gaitua egiteko betebeharretik harago joatea, lehendik ere Prozedura Kriminalaren Legearen 262. artikuluan ezarritakotik harago joatea. Izan ere, azken horren arabera:

Norbaitzuek, euren kargu, lanbide edo ogibideak direla medio, delitu publiko baten berri badute, berehala horren salaketa egin beharko diote Fiskaltzari, auzitegi eskudunari, instrukzio-epaileari, eta, halakoa izan ezean, tokitik hurbilen dagoen udaltzainari edo poliziako funtzionarioari, baldin eta ageri-ageriko delitua bada.

Kirol-eremuan ingurune seguruak eraikitzeke erronka aldaketa kultural bat eragin nahi duen prozesu baten esparruan kokatzen da, kirol-testuinguruetan dauden indarkeria jakin batzuen aurreko permisibitatea desagertu edo arintzeko prozesuaren barruan, hain zuzen.

Aldaketa hori talde-lanean sortu behar da, eta etengabe hobetu eta egokitu behar da kirol-ingurune eta -erakunde espezifiko bakoitzera. Horregatik, erantzunkidetasunaren eskema oinarri hartuta hemen egiten den proposamenak edozein kirol-erakundetako eragile generikoak biltzen ditu (haur eta nerabe kirolariak, senideak edo legezko arduradunak, entrenatzaileak, arbitroak, haur eta nerabe kirolariei osasun-laguntza emateko langileak eta kirol-erakundeetako zuzendariak), eta erantzunkide egiten ditu ingurune seguru horiek eraikitzeke garaian.

Hauxe da erantzunkidetasunaren eskema horren azpian dagoen logika: zenbat eta pertsona gehiago egon sentibilizatuta eta prestatuta kirolean haur eta nerabeak babesteari dagokionez, orduan eta zailagoa izango da indarkeria-egoeraren bat gertatzea, pertsona gehiago egongo direlako adi indarkeria-egoera horiek hauteman eta horrelakoetan esku hartzea erraztu ahal izateko. Ikuspegi horretatik, asmoa da elkar zaintzeko sare bat ehuntzen joatea, gero eta gertagaitzagoa izan dadin kirol-testuinguruan indarkeria-egoeraren bat sortzea haur eta nerabeen kontra. Era berean, haur eta nerabeek kirol-testuingurutik kanpo izan ditzaketen indarkeriak goiz

hautemateko eta horietan esku hartu ahal izateko ingurunea ere sortu nahi da, elkarlanean eta lankidetzan arituz haur eta nerabeekin lan egiten duten eragileen artean.

Horrela, haurrak babesteko ordezkariaren (HBO) figura sortu behar da. Izan ere, legeak ezarritakoa betez, ordezkari horrek dinamizatu beharko ditu kirol-sistemako eragile bakoitzarentzat hemen bildu diren zereginak, eta ordezkari hori izan beharko da bere kirol-erakundean haurrak babesteko kultura eraiki eta mantentzeko lana abiarazi eta egokitu beharko duena.

Hala, **3. taulan** jaso dira haurrak babesteko ordezkariak zer zeregin dinamizatu behar dituen kirol-sistemako eragileekin, prebentzioaren, hautemate goiztiarraren edo esku-hartzearen arabera antolatuta.

Nolanahi ere, oro har, nabarmendu behar dira prebentzioaren eta haur eta nerabeei tratu ona ematearen eremuan kirol-eragile guztientzat eskainiko diren prestakuntza eta sentsibilizazio-kanpainak, bai eta [Zeuk esan](#) ekimena ere, erreferentziazko baliabidea baita haur eta nerabeen kontrako edozein indarkeria-egoera jakinarazteko edo salatzeke eta gaiari buruzko aholkularitza eskatzeko.

Bereziki aipatu behar da haurrak babesteko ordezkariak dinamizazio-lan berezia egin beharko duela hautemate goiztiarraren eremuan, begirada kritikoa sustatu beharko baitu haur eta nerabeen kontrako indarkeria eragin lezaketen egoeren inguruan. Galdera kritiko hauen helburua da kirol-sistemako eragileek kontzientzia hartzea eta bereziki sentiberak izatea haur eta nerabeak biktimizatzeko arrisku bereziko egoerei dagokienez.

3. taula. Haurrak babesteko ordezkariak (HBO) kirol-sistemako eragile bakoitzarekin dinamizatu behar dituen prebentziorako, hautemate goiztiarrerako eta esku-hartzeko zereginak

KIROLARI ADINGABEEKIN			
Jakina, haiek ez dute “azken” erantzukizunik prebentziorako, hautemate goiztiarrerako edo esku hartzeko ekintzen gainean, baina partaide izan behar dute, elkarrekiko duten erantzukidetasunaren kontzientzia hartuz. Ildo horretan, prebentzioari, hautemate goiztiarrari eta esku-hartzeari buruzko alderdiak haiekin batera lortu beharreko helburu gisa ulertu behar dira.			
Berdinen arteko indarkeriari dagokionez, kontuan hartu beharreko erreferenteetako bat KIVA metodoa izan daiteke; metodo horrek, besteak beste, ikasle laguntzailearen figura nabarmentzen du. Bada, gure eremura eramanda, haurrak babesteko ordezkariaren laguntzailea izango den haur edo nerabe kirolari bat izango litzateke (kapitainak), erreferente hurbilagoa bailitzateke haur eta nerabe horientzat.			
Indarkeria motak kirolean	PREBENTZIOA	HAUTEMATE GOIZTIARRA Kontzientziatzeko galdera kritikoen zerrenda	ESKU-HARTZEA

Nork bere buruari egindako indarkeria	Nork bere burua eta taldekideak zaintzea sustatzea	- Ondo pasatzen al duzu? (HBO: Ondo pasatzen al dute?) - Sumatzen al duzu taldekideren bat ez dela zoriontsu (taldean/kirol-testuinguruan)?	- Ez dezatela zalantzarik izan entrenatzailearekin, HBOarekin* edo beste edozein heldurekin hitz egiteko. Horretarako, konfiantzazko guneak sortu eta ahalbidetu beharko dira. - Jar daitezela harremanetan, zuzenean, <i>Zure Taldekoak Gara</i>-rekin.
Pertsonen arteko indarkeria	- Bestearekiko errespetua lantzea (gutxi-asko desberdina, nire taldekoa edo beste talde batekoa). - Nork bere buruaren babesa lantzea (taldekideek ondo tratatu behar zaituzte, eta entrenatzaileak ere bai)	- Errespetuz tratatzen al dituzu taldekideak? (HBO: Errespetuz tratatzen al dute elkar?) - Taldekideek errespetuz tratatzen al zaituzte? Iraintzen al zaituzte? Gaizki sentiarazten al zaituzte?... (HBO: Taldekideek errespetuz tratatzen al dute elkar? Iraintzen al dute elkar? ...). - Entrenatzaileak errespetuz tratatzen al zaitu? Iraintzen al zaitu? Gaizki sentiarazten al zaitu?... (HBO: Entrenatzaileak errespetuz tratatzen al ditu? Iraintzen al ditu?...	- Ez dezatela zalantzarik izan, gorabeheraren bat izanez gero, entrenatzaileari, HBOari edo beste edozein helduri jakinarazteko. - Jar daitezela harremanetan, zuzenean, <i>Zure Taldekoak Gara</i>-rekin.

* Alderdi hori argitu behar dugu. Entrenatzailearekin hitz egin behar dute, ala zuzenean HBOarekin?

Testuinguruko indarkeria (normatibo-estrukturala)	• Adingabeek erakundearen erabakietan parte hartzea sustatzea. • Bidezko jokaera sustatzea.	• Kontuan hartzen al dute zure iritzia zure talde/klub/federazioaren erabakietan? (HBO: Kontuan hartzen al dira kirolari adingabeen iritzia zure talde/klub/federazioaren erabakietan?) • Zure taldean/klubean/federazioan, diskriminatuta sentitzen al zara zure generoa, identitate afektibo-sexuala, etnia edo antzekoren bat dela eta? (HBO: Zure taldean/klubean/federazioan, diskriminatuta sentitzen al da inor?) •	• Ez dezatela zalantzarik izan, diskriminazio-egoeraren bat izanez gero, entrenatzaileari edo HBOari jakinarazteko, edo <i>Zure Taldekoak Gara</i>-ri.
---	--	---	--

SENIDEekin/LEGEZKO TUTOREekin

Haur eta nerabeen senideek eta legeko tutoreek funtsezko eginkizuna dute seme-alaben kirol-jarduera osasungarria izan dadin haien ongizaterako. Espainiako Kode Zibilean guraso-ahalari buruz ezarritakoaren arabera, haur eta nerabeen senideek edo legeko tutoreek ahal hori erabiliko dute “beti seme-alaben interesen alde, haien nortasunarekin bat etorritik eta haien eskubideak eta osotasun fisikoa eta mentala errespetatuz”. Horretarako, besteak beste, honako betebeharrak hauek bete behar dira: “seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok hezteak, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea”. Beraz, eta begi-bistakoa dirudien arren, haur eta nerabeen familiek eta legeko tutoreek protokolo honetako partaide izan behar dute, haur eta nerabeen kirol-jarduerako ongizatearen erantzunkide baitira.

Indarkeria motak kirolean	PREBENTZIOA	HAUTEMATE GOIZTIARRA Kontzientziazteko galdera kritikoen zerrenda	ESKU-HARTZEA
Nork bere buruari egindako indarkeria	• Sentsibilizazioa adingabeek beren burua zaintzea sustatzeko gaietan eta hautemate goiztiarra indarkeria mota desberdinetan (suizidioa, osasun mentala edo elikadura-nahasmenduak)	• Zure seme-alabek ondo pasatzen al dute kirola egiten? • Nabaritu al duzu aldarte- edo jokabide-aldaketaren bat? • Nabaritu al duzu zure seme-alabek gorputz-lesio “deigarriren” bat duten? • Hitz egiten al duzue elikadura osasungarriari buruz? Modu “deigarrian” hitz egiten al du elikadurari buruz? • Zailtasunik al du entrenatzaileekin edo taldekideekin komunikatzeko? • Batzuetan, errezeloa erakusten al du entrenatzera joateko?	• Ez dezatela zalantzarik izan entrenatzailearekin edo HBOarekin hitz egiteko.
Pertsonen arteko indarkeria	• Sentsibilizazioa eta hedapena haur edo nerabeak parte	• Zure seme-alabekin lehiaketa bati buruz hitz egiten duzunean, zeri buruz galdetzen diozu? Emaizari	• Ez dezatela zalantzarik izan, gorabeheraren

	hartzen duen erakundean adingabearenganak o tratu onean eta ongizatean oinarritutako entrenamendu-estiloari eta jokabide-kodeari buruz	buruz bakarrik? Edo gozamenari eta saioari buruz? • • Zure seme-alabek errespetuz hitz egiten al dute taldeko/klubeko kideei buruz? • Zure seme-alabek hitzez adierazten al dute taldekideek errespetuz tratatzen dituztela? Iraintzen al dute? Gaizki sentiarazten al dute?... • Zure seme-alabek hitzez adierazten al dute entrenatzaileak errespetuz tratatzen dituela? Iraintzen al du? Gaizki sentiarazten al du?... • Seme-alabaren partidak/lehiaketak/entrenamenduak ikustera zoazenean, animatu besterik ez duzu egiten ala kritikaren bat egiten al duzu entrenatzaileari, jokalariren bati edo arbitroari buruz?	bat izanez gero, entrenatzaileari edo HBOari jakinarazteko, edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
Testuinguruk o indarkeria (normatibo-estrukturala)	• Adingabeek erakundearen erabakietan parte hartzea sustatzea. • Bidezko jokaera sustatzeko gaietan sentsibilizatzea.	• Zure seme-alabek parte hartzen al dute talde/klub/federazioaren erabakiak hartzean? • Sumatzen al duzu zure seme-alabak diskriminatuta daudela haien taldean/klubean/federazioan?... (tratu desberdina, aurrekontu desberdina, instalazioetara sartzeko aukera desberdinak...)	• Ez dezatela zalantzarik izan, diskriminazio-egoeraren bat izanez gero, entrenatzaileari edo HBOari jakinarazteko, edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.

ENTRENATZAILEEKIN

Entrenatzaileak funtsezkoak dira adingabeek garapen integrala izan dezaten kirolean, baita kirolaren bidez ere. Era berean, haiek dira adingabeen ongizate integralean duten erantzukizunaz kontzientzia handiena hartu behar dutenak. Ildo horretan, garrantzitsua da interpelatuta senti daitezela beren hezkuntza-eginkizunari buruz, baina kriminalizatzen dituztela sentitu gabe. Autokritika handiagoa garatzea eta beren kargura dituzten haurrak hezkuntza-arloan tratatzeko tresnak izatea da erronka. Gainera, ezin dugu ahaztu haiek ere, kasu askotan, adingabeak izan daitezkeela. Horrexegatik da hain garrantzitsua kirol-erakunde guztiek argi izatea zein politika erabiltzen duten entrenatzaileak eta haur eta nerabeekin harreman zuzena duten langileak bildu, kontratatu eta gaitzeko, haur eta nerabeen ongizatea ipini behar dutela erdigunean.

Errendimendu handiko ibilbideetan aritzen diren haur eta nerabeen entrenatzaileen kasuan bereziki, honako hauek agertu beharko dira protokoloan: entrenamenduen edukiei, aukera profesionalari, emaitzei, bidaiei, egonaldiei eta bestelakoei buruzko gaiak. Gauzak horrela, gogoeta egin behar da alderdi horietako bakoitzerako funtzionamendu-protokolo espezifikoak ezartzeari buruz, haur kirolariei eragiten dieten jokabideak egoteko arriskua murrizteko.

Indarkeria motak kirolean		PREBENTZIOA	HAUTEMATE GOIZTIARRA Kontzientziatzeko galdera kritikoen zerrenda	ESKU-HARTZEA
Nork bere buruari egindako indarkeria		Oinarrizko prestakuntza adingabeek beren burua zaintzea sustatzeko gaietan eta hautemate goiztiarra suizidioaren eta elikadura-nahasmenduen arloan	- Entrenatzen dituzun kirolariek ondo pasatzen al dute? Galdetu al diezu? - Nabaritu al duzu kirolariren batek gorputz-lesio "deigarriren" bat duen? - Zure ustez, kirolariren bat bereziki triste al dago, edo aldarte-aldaketaren bat izan al du berriki? Galdetu al diozu zer gertatzen zaion? - Ba al dakizu zer egin behar duzun hori gertatuz gero? Ba al dakizu nola eta nori jakinarazi? - Hitz egiten al duzue elikadura osasungarriari buruz? Modu "deigarrian" hitz egiten al du elikadurari buruz?	Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
Pertsonen arteko indarkeria	Entrenatzaileak kirolariei	- Sexu-izaerako delituen ziurtagiria - Prestakuntza adingabearengana nako tratua onean eta ongizatean oinarritutako entrenamendu-estiloari eta jokabide-kodeari buruz	- Kontuan hartzen al dituzu zure taldean kirola egiten duen haur bakoitzaren ezaugarri eta premia espezifikoak haiekin tratatzean (entrenamenduen diseinua, lehiaketako parte hartzea...)? - Zure ustez, entrenamendu/lehiaketa/partidaren batean, arriskuan jarri al duzu entrenatzen dituzun haur eta nerabeen osasuna? Lesionatuta dagoen haur edo neraberen bat jokatzerako edo entrenatzera behartu al duzu? - Lesioak prebenitzeko jarduerarik egiten al duzue beroketetan? - Ba al dakizu zein den entrenatzen dituzun haur eta nerabeen familia- eta eskola-egoera? - Inoiz umiliatu edo barregarri utzi al duzu entrenatzen duzun haur edo neraberen bat? - Oihu egiten al diezu haur eta nerabeei, edo estilo oldarkorra	Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.

			erabiltzen al duzu haiekin hitz egiteko (irainak/mehatxuak/...)? • Zuen taldean egiten al duzue edo onartzen al duzu inimizitate-erriturik edo hasiberriaren kontrako isekarik? • Jokalariren bat zigortu al duzu entrenamendu/lehiaketa/partidaren batera deitu gabe? • Zure jokalariei xantaia egin al diezu errendimendu, inplikazio edo eskuragarritasun txikia izanez gero deituko ez dituzula, berriro jokatuko ez dutela eta antzekoak esanez? • Aldageletara sartzen zarenean, atea jo eta sartzeko baimena eman arte itxaroten al duzu? • Zure ustez, entrenatzen dituzun haur eta nerabeekin kontaktu fisikoa izanez gero, deseroso sentiarazten ditu horrek? • Egiten al duzu txiste edo iruzkinik sexuarekin lotuta edo diskriminazio-egoeraren baten inguruan (sexismoa, arrazakeria, abilezia-falta...)? • Haur eta nerabeen artean giro ona eta errespetuzkoa sustatzen duzula uste al duzu? (elkarri erasorik ez egitea, inor ez baztertzea...) • Ziurtatzen al duzu aldagela gune segurua dela haur eta nerabe guztientzat?	
	Familian	• Bilerak egitea familiarekin edo erreferentziazko legezko arduradunekin	• Ezagutzen al dituzu haur eta nerabeen senideak edo erreferentziazko legezko arduradunak? • Zure ustez, haur eta nerabe batzuk ez daude behar bezala artatuta haien familia-ingurunean (higienea, elikadura, errepresalien beldur dira kirol-errendimendu "txarra" badute...)? • Inoiz nabaritu al duzu adingabe horiek jokabide desegokiren bat izan dutela lehiaketan edo entrenamenduren batean? Zerbait egin al duzu?	• Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo Zure Taldekoak Gara-ri.

	Berdinen artekoa	• Prestakuntza gatazkak konpontzeari eta kirolaren bidezko garapen positiboari buruz	• Nabaritu al duzu haur edo neraberen bat diskriminatuta dagoela edo gainerako haur eta nerabeek errespeturik ez diotela? • Nola bermatzen duzu haur eta nerabeek tratu egokia dutela haien artean lehiaketan, entrenamenduetan eta aldageletan?	• Larriak ez badira edo behin eta berriro gertatzen ez badira, bitarteko izan jasotako prestakuntzar en arabera. • Tratu diskriminatzaile eko edo errespetu faltako kasu larriak edo <i>errepikakorrek</i> gertatzen badira, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
Testuinguruko indarkeria (normatiboe-estrukturala)	• Prestakuntza botere-sistemei eta kirolari buruz • Kudeaketa gardena baliabideen banaketari dagokionez • Prestakuntza kirol-material, -instalazio eta -testuinguru seguruei buruz (kirol-modalitatearen istripu-tasa)	• Prestakuntza botere-sistemei eta kirolari buruz • Kudeaketa gardena baliabideen banaketari dagokionez • Prestakuntza kirol-material, -instalazio eta -testuinguru seguruei buruz (kirol-modalitatearen istripu-tasa)	• Zure ustez, entrenatzen dituzun haur eta nerabe kirolariak diskriminatuta al daude klub edo federazio bereko beste batzuen aldean? • Uste al duzu araudia ez datorrela bat zuk entrenatzen dituzun haur eta nerabe kirolariekin? • Zure ustez, lehiaketen antolaketa diskriminatzen al ditu zuk entrenatzen dituzun haur eta nerabe kirolariak? • Entrenamenduen/lehiaketen/p artiden aurretik, gainbegiratzen al dituzu erabiliko diren instalazioak eta materiala?	• Larriak ez badira edo behin eta berriro gertatzen ez badira, bitarteko izan jasotako prestakuntzar en arabera. • Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.

ARBITROEKIN

Zalantzarik gabe, arbitroak funtsezko osagaia dira haur eta nerabeek parte hartzen duten kirol-lehiaketak behar bezala garatzen direla bermatzeko. Bermatze horrek, lehiakortasunari dagokionez ez ezik, haur eta nerabe kirolarien babesa eta ongizatea zaintzeari dagokionez ere sakondu behar du, eta beti adingabeen interes gorena gailentzen dela ziurtatu.

Gainera, ezin dugu ahaztu arbitroak ere, kasu askotan, kirolari adingabeak izan daitezkeela, eta, beraz, kirolariei buruzko atalean azaldutakoa ere aplikatu behar dela, behar diren egokitzapenak eginda.

Indarkeria motak kirolean		PREBENTZIOA	HAUTEMATE GOIZTIARRA Kontzientziatzeko galdera kritiko zerrenda	ESKU-HARTZEA
Nork bere buruari egindako indarkeria		Oinarrizko prestakuntza adingabeek beren burua zaintzea sustatzeko gaietan eta hautemate goiztiarra haurren kontrako indarkeria mota desberdinetan.	- Haur eta nerabe kirolariek ondo pasatzen al dute arbitratzen dituzten lehiaketetan? Arbitro adingabea bazara: Laguntzen al dizute zure osasun mentala lantzen? Ba al duzu tresnarik gerta litezkeen indarkeria-egoerak identifikatzeko?	Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
Pertsonen arteko indarkeria	Arbitroak jokalariei	Prestakuntza haur eta nerabearenganako tratu onean eta ongizatean oinarritutako arbitraje-estiloari eta jokabide-kodeari buruz	- Inoiz umiliatu edo barregarri utzi al duzu arbitratzen duzun haur edo neraberen bat? - Oihu egiten al diezu haur eta nerabeei, edo estilo oldarkor-mehatzatzailea erabiltzen al duzu haiekin hitz egiteko (irainak/mehatxuak/...)? - Haur eta nerabeen artean giro ona eta errespetuzkoa sustatzen duzula uste al duzu? (elkarri erasorik ez egitea, inor ez baztertzea...) - Azaltzen al dituzu zure arbitro-erabakien zergatiak haiek ere ikas dezaten? Edo araudia aplikatu besterik ez duzu egiten? ...	Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
	Entrenatzaileak kirolariei	Prestakuntza adingabearenganako tratu onean eta ongizatean oinarritutako arbitraje-estiloari eta jokabide-kodeari buruz	Sumatzen al duzu entrenatzaileek gehiegi eskatzen dietela? Entrenatzaileek berdin eta errespetuz tratatzen al dituzte zuzentzen dituzten kirolari guztiak? Horrela ez bada,	Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.

			zerbait egiten al duzu horri dagokionez? • Onartzen al duzu haur edo nerabeek lesionatuta jokatzeko jarraitzea? • Ba al duzu tresnarik haur eta nerabeen ongizateari kalte egiten dioten egoerei dagokionez gertatutakoa aktan jasotzeko partidaren/lehiaketaren ondoren? • Nabaritu al duzu entrenatzaileek ez dietela jaramonik egiten jokalariei eskaerei (nekea, estutasuna, ondoeza, presioa...)? • Arbitro adingabea bazara: Tratu egokia jasotzen al duzu entrenatzaileen aldetik? Errieta egin edo iraintzen zaituzte?	
	Familian	• Prestakuntza adingabearenganako tratu onean eta ongizatean oinarritutako arbitraje-estiloari eta jokabide-kodeari buruz	• Tratu egokia jasotzen al duzu ikusle dauden senideen aldetik? • Onartzen al duzu lehiaketetako ikusleek haur eta nerabe kirolariei errieta egitea edo iraintzea? • Ba al duzu tresnarik horrelakoetan jarduteko? • Zure ustez, familia-inguruneak gehiegi eskatzen die kirolariei? • Arbitro adingabea bazara: Tratu egokia jasotzen al duzu familiaren eta ikusleen aldetik? Errieta egin edo iraintzen zaituzte?	• Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak</i> Garrantzi.

	Berdinen artekoa	• Prestakuntza gatazkak konpontzeari eta kirolaren bidezko garapen positiboari buruz	• Nola bermatzen duzu haur eta nerabeek tratu egokia dutela haien artean lehiaketan? (Onartzen al duzu haien artean iraintzea? Elkarri oihu egitea?...) • Zure ustez, haur eta nerabe kirolariek gehiegi eskatzen al diete elkarri edo gehiegi aurpegiratzen al diete elkar gertatutakoa? •	• Larriak ez badira edo behin eta berriro gertatzen ez badira, bitarteko izan jasotako prestakuntzaren arabera. • Tratu diskriminatzailek o edo errespetu faltako kasu larriak edo <i>errepikakorrek</i> gertatzen badira, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
Testuinguruko indarkeria (normatibo-estrukturala)	• Prestakuntza botere-sistemei eta kirolari buruz • Prestakuntza kirol-material, -instalazio eta -testuinguru seguruei buruz (kirol-modalitatearen istripu-tasa)	• Zure ustez, arbitratzen dituzun haur eta nerabe kirolariak diskriminatuta al daude kirol bereko beste batzuen aldean? • Uste al duzu araudia ez datorrela bat zuk arbitratzen dituzun haur eta nerabe kirolariek? • Zure ustez, lehiaketen antolaketak diskriminatzen al ditu zuk arbitratzen dituzun haur eta nerabe kirolariak? • Lehiaketen/partiden aurretik, gainbegiratzen al dituzu erabiliko diren instalazioak eta materiala? • ...	• Larriak ez badira edo behin eta berriro gertatzen ez badira, bitarteko izan jasotako prestakuntzaren arabera. • Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.	

OSASUN-LAGUNTZA EMATEKO LANGILEEKIN (MEDIKUA, FISIOTERAPEUTA, PSIKOLOGOA...)

Osasun-laguntza emateko langileak (medikua, fisioterapeuta, psikologoa...) bereziki hartu behar dira kontuan, oso hurbilekoak direlako eta, batzuetan, kontaktu fisikoa ere izaten dutelako haur eta nerabe kirolariek. Jakina, profesional bakoitzak bere deontologia-kodea izango du, eta pentsa daiteke figura profesional horiek presente egongo direla haur eta nerabe kirolariek errendimendu handiko ibilbideetan lan egiten duten erakundeetan.

Indarkeria motak kirolean	PREBENTZIOA	HAUTEMATE GOIZTIARRA Kontzientziatzeko galdera kritikoen zerranda	ESKU-HARTZEA
---------------------------	-------------	---	--------------

Nork bere buruari egindako indarkeria		• Oinarrizko prestakuntza adingabeek beren burua zaintzea sustatzeko gaietan eta hautemate goiztiarra indarkeria mota desberdinetan	• Entrenatzen dituzun kirolariek ondo pasatzen al dute? Galdetu al diezu? • Nabaritu al duzu kirolariren batek gorputz-lesio “deigarriren” bat duen? • Nabaritu al duzu kirolariren bat “mentalki” nekatuta dagoen? • Zure ustez, kirolariren bat bereziki triste al dago, edo aldarte-aldaketaren bat izan al du berriki? Galdetu al diozu zer gertatzen zaion? • Hitz egiten al duzue elikadura osasungarriari buruz? Modu “deigarrian” hitz egiten al du elikadurari buruz?	• Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara</i>-ri.
Pertsonen arteko indarkeria	Langileek kirolariei	• Sexu-izaerako delituen ziurtagiria • Prestakuntza adingabearenganako tratu onean eta ongizatean oinarritutako entrenamendu-estiloari, jokabide-kode profesionalari eta indarkeriaren prebentzioari buruz	• Nabaritu al duzu lesioen edo osasun mentaleko arazoen intzidentzia “bereziki” handia den? Jakinarazi al diozu entrenatzaileari, haurrak babesteko ordezkariari...? • Kirol-errendimenduaren gainetik jartzen al duzu kirolariaren osasuna? •	• Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara</i>-ri.
Testuinguruko indarkeria (normatibo-estrukturala)		• Prestakuntza botere-sistemei eta kirolari buruz • Kudeaketa gardena baliabideen banaketari dagokionez	• Zure ustez, artatzen dituzun haur eta nerabe kirolariak diskriminatuta al daude klub edo federazio bereko beste batzuen aldean? • Zure ustez, zure erakundea arduratzen al da haur eta nerabeen interes gorena babesteaz erakundearen beste interes batzuen aurretik (lehia-lorpenak, lorpen ekonomikoak...)? • Uste al duzu profesional gisa egiten dituzun gomendioak jarraitzen direla? ala parte-hartzea eta emaitza lehenesten dira emandako gomendioen gainetik?	• Susmorik izanez gero, jakinarazi HBOari edo <i>Zure Taldekoak Gara</i>-ri.


		• Presionatuta sentitu al zara zure lanbidearen deontologia-kodea ez betetzeko?	
--	--	---	--

KIROL-ERAKUNDEETAKO ZUZENDARIEKIN Kirol-erakundeetako zuzendariak, erakunde horiek kudeatzeko ardura izateaz gain, eta indarrean dagoen araudia eta haur eta nerabe kirolarien ongizatearekin eta zaintzarekin zerikusia duen araudi oro aplikatzeko ardura izateaz gain, badute, baita ere, dagozkien erakundeetan haur eta nerabeak babesteko kulturaren sustapenaren buru izateko betebeharra.			
Indarkeria motak kirolean	PREBENTZIOA	HAUTEMATE GOIZTIARRA Kontzientziatzeko galdera kritikoen zerrenda	ESKU-HARTZEA
Nork bere buruari egindako indarkeria	• Sentsibilizazioa adingabeek beren burua zaintzea sustatzeko gaietan eta hautemate goiztiarra erakundearen haurren kontrako indarkeriaren prebentzioaren eta babes-kultura sortzearen arloan.	• Zure erakundeko entrenatzaileek ba al dute prestakuntzarik haur eta nerabeek beren burua zaintzeari, hautemate goiztiarrari eta haurren kontrako kiroleko indarkeriaren prebentzioari buruz?	• Aholkularitza eskatu <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.
Pertsonen arteko indarkeria	• Sentsibilizazioa eta hedapena jokabide-kodeari buruz, eta haur edo nerabeenganako tratu onaren eta ongizatearen kultura sortu eta sustatzea erakundearen.	• Ba al dakizu zure erakundeko haur eta nerabe kirolariak errespetuz hitz egiten duten taldeko/klubeko kideei buruz? • Ba al dakizu zure erakundeko haur eta nerabe kirolariak errespetuz tratatzen ote diren talde/klubeko kideen artean? Eta lehiaketan edo	• Aholkularitza eskatu <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i>.

		jokoan parte hartzen duten gainerako haur eta nerabe kirolariekin? • Ba al dakizu haur eta nerabe kirolariek sentitzen duten entrenatzaileak errespetuz tratatzen dituela? Iraintzen al ditu? Gaizki sentiarazten al ditu?... • Ba al dakizu zure erakundeko haur eta nerabeek uste duten konfiantzazko gune batean daudela haien kezkak azaldu ahal izateko?	
Testuinguruko indarkeria (normatibo-estrukturala)	• Arriskuen analisisa eta prebentzio-jarduketa plana egitea, arriskuok errotik kentzeko eta mugatzeko (kirol horren istripu-tasa, kalitatezko azpiegiturak...). • Haur eta nerabeek erakundearen erabakietan parte hartzea sustatzea. • Bidezko jokaera sustatzeko gaietan sentsibilizatzea.	• Haur eta nerabe kirolariek parte hartzen al dute talde/klub/federazioaren erabakiak hartzean? • Zure taldeko/klubeko/federazioko kirolari guztiek jasotzen al dute tratu bera? (tratu desberdina, aurrekontu desberdina, instalazioetara sartzeko aukera desberdinak...)	• Eskatu laguntza <i>Zure Taldekoak Gara-ri</i> haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko politikak ezartzeko.

Hala, James Reason-en Gruyere gazta-xerren eredua (2009) gure eremura egokituz, pentsa daiteke ezen, baldin eta babes-protokolo egokia, haurrak babesteko ordezkari gaitua, gai honen inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza jaso duten kirol-sistemako eragileak, arriskugarritasun-diagnostiko eguneratuak eta antzekoak badauzkagu, gero eta zailagoa izango dela haur eta nerabe kirolariak biktimizatzea, orduan eta zailagoa izango baita arriskuren batek ihes egitea, egiten den kirol-modalitatearen istripu-tasa bera kenduta (gai horri buruz ere hausnartu beharra dago).

1. irudia James Reason-en Suitzako gaztaren eredua, kirolean haur eta nerabeak babesteari buruzkoa (geuk egin dugu)



Beraz, prebentzioan, hautemate goiztiarrean eta esku-hartzean aurrera egiten jarraitzen badugu, zaila izango da jardunbide pertsonal eta antolamenduzko desegokiak lerrokatzea, eta, ondorioz, haur eta nerabeak indarkeria-motaren baten biktima izatea.


Ildo horretan, pentsatzeko modukoa da erantzukidetasunaren eskemara itzuli behar dela, eta nabarmendu garrantzitsua dela **elkar zaintzeko triangelu erlazional moduko bat** sustatzea haur eta nerabe kirolariekin. Horrela, indarkeriazko harremanen bat egon daitekeen kasuetan ere, beti egongo da hirugarren pertsona bat, eta handiagoa izango da norbaitek jardunbide desegoki bat detektatzeko eta horren aurrean erreakzionatzeko probabilitatea. Nolabait, erakunde batean dauden pertsona guztiak izan daitezke, unerenean, *erasotzaileak*, *biktimak* edo *zaintzaileak*, nahiz eta indarkeriazko adierazpen txikietan izan. Izan ere, konstruktiboagoa da termino horietan pentsatzea eta interpelatuta sentitzea heldu gisa kontrakoa pentsatzea baino. Argi dago: egoerarik onena izango litzateke erasotzailerik ez biktimarik ez egotea eta, ondorioz, zaintzaileen beharrik ere ez egotea. Baina, termino errealistagoetan, ez dago zalantzarik: hobe da hirukote hori gertatzeko probabilitateari buruz galdetzea geure buruei, bai eta hura ahalik eta kalterik txikienarekin modu partekatuan kudeatzeko moduari buruz ere.

Hala, egia bada ere kirol-jardueraren hainbat inguruetan —modalitate bakoitzean— eta harmailetan, aldageletan edo talde-bidaietan, adibidez, gertatzen diren dinamika sozialak desberdinak direla, berbera izango litzateke, oinarritzko zentzuan, *erasotzaileak*, *biktimak* edo *zaintzaileak* elkar zaintzeko triangelu erlazionalaren eskema. Benetako erronka da ez dadila egon erasotzailerik, edo, baldin badaude, ahalik eta zailena eduki dezatela indarkeriarekin lotutako haien jardunbide desegokiarekin biktimak sortzeko.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da bi esparrutan jardutea: bai erasotzaile potentzialengan eta bai biktima potentzialengan. Indarkeriarik gabeko egoera ideal bateko goranzko eskala batean, lehenengo ideala litzateke erasotzaile potentzialek behar bezainbateko autokontrol ahalmena bereganatzea beste batzuei lesioak eragin lekizkiekeen portaerak ekiditeko, eta bigarrena, indarkeriarik gabeko sozializazio hori lortu ez arren, indarkeriaren biktima potentzialek beren buruak babesteko dauzkaten estrategiek eta zaindarienek, ezinezkoa ez bada ere, zailtasun handiak jartzea erasotzaile potentzialek indarkeria-ekintzak aurrera eraman ditzaten.

Protokoloa aplikatzeko eskakizuna modulatzeko orduan kontuan hartu beharreko azken kontu bat da ea zein den egiten den kirol-modalitatearen errendimendua edo partaidetza, bai eta banaka edo taldeka jarduten den ere. Dimentsio horiek gurutzatzeko lau konbinazioek, duten izaeragatik beragatik, eskakizun desberdina izan behar dute protokoloaren aplikazioari eta jarraipenari dagokienez. Hala, **2. irudian** ikus dezakegunez (jarraian), kasu guztietan hartu behar da kontuan hemen deskribatutako protokoloa, baina haren egokitzapenak eta eskakizunak handiagoak izan beharko lukete errendimenduzko ibilbideetan, eta, bereziki, banakako modalitateetan, horietan zailagoa izan baitaiteke **elkar zaintzeko triangelu erlazonala** lortzea.

2. irudia. Protokoloaren aplikazioaren eskakizun-maila, kirol-jardueraren banakako/taldekako izaeraren eta partaidetzaren/lehiaketaren arabera (geuk egin dugu)



5. HAURRAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN GARRANTZIA.

HNIBBILOren **48. artikuluan** arabera, adingabeekin kirol- edo aisia-jarduerak egin ohi dituzten erakundeek betebeharrak hauek dituzte:

Adingabeak babesteko ordezkaria izendatzea, adingabeek harengana jo ahal izan dezaten beren kezkak adierazteko. Ordezkari hori arduratuko da ezarritako protokoloak hedatzeaz eta betearazteaz, bai eta dagozkion komunikazioak hasteaz ere haurren edo nerabeen kontrako indarkeria-egoeraren bat hauteman den kasuetan.

Beraz, adingabeak babesteko ordezkaria funtsezko figura da kirol-erakundeetan, lan egiten duen kirol-erakundea ingurune segurua dela ziurtatzeko. Gauzak horrela, HNIBBILOren **48. artikuluan** ezarritako betebeharrak guztiei erantzuteko ardura erakundeena bada ere, gomendagarria da adingabeak babesteko ordezkariak dinamizatzea betebeharrak horiek, eta horien guztien lider izatea. Hala, adingabeak babesteko ordezkariak, beste eginkizun batzuk ere bete ditzakeen arren, nahitaez garatu beharko ditu honako hauek:

a) Administrazio publikoek kirolaren eta aisiaren eremuan hartutako eta aurreko artikuluan aipatutako jarduteko protokoloak aplikatzea.

b) Monitorizazio-sistema bat ezartzea adingabeen babesari lotutako aurreko protokoloak betetzen diren ziurtatzeko.

c) Adingabeak babesteko ordezkaria izatea, adingabeek harengana jo ahal izan dezaten beren kezkak adierazteko. Halaber, ezarritako protokoloak hedatzeaz eta betearazteaz arduratzea, bai eta dagozkion komunikazioak hasteaz ere haurren edo nerabeen kontrako indarkeria-egoeraren bat hauteman den kasuetan.

d) Behar diren neurriak hartzea kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisia ez daitezkeen izan diskriminazio-gune adina, arraza, desgaitasuna, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo genero-adierazpena dela eta, edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela eta. Horretarako, haur eta nerabeekin nahiz haien familiarekin eta profesionalekin lan egingo da, irainak eta adierazpen laidoak eta diskriminazioak erabiltzeari uko egitea lortzeko.

e) Haurren eta nerabeen partaidetza aktiboa sustatzea haien prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan.

f) Kirol-erakundeetan eta gurasoen edo tutoretza-, zaintza- edo harrera-eginkizunak betetzen dituzten arteko harremanak eta komunikazioa sustatzea eta sendotzea.

Adingabeak babesteko ordezkariari esleitu zaizkion eginkizunak behar bezala garatu ahal izan daitezkeen, ondo zaindu beharko da nor hautatzen den ordezkari izateko. HNIBBILOk ezarritako jarduerak ezartzeko lidergo-gaitasuna izateko, zalantzarik gabe, gaiari buruzko gutxienezko prestakuntza jasotzeaz gain —zehaztu behar da—, ezinbestekoa izango da, baita ere, erreferentziazko pertsona bat izatea erakundearen barruan, hurbilekoa, eta pertsonekin, oro har, eta haur eta nerabe kirolariekin, bereziki, harremanak izateko gizarte-trebetasunak dituenak.

6. PROTOKOLOAREKIN IBILTZEN HASTEN

Jarraian azaldu dugu zer egin behar duen erakunde bakoitzak HNIBBILOtik kirol-arlorako eratortzen diren eskakizun guztiak ezartzeko prozesuarekin hasteko. Zeregin horiek urtero egin beharko lirateke, PDCAren logikaren arabera (Plan-Do-Check-Act edo planifikatu, egin, egiaztatu eta doitu), baina bereziki garrantzitsuak dira protokoloa ezartzeko hasierako etapetan. Hona hemen:

- A. **Adingabeak babesteko ordezkaria** hautatu (haur eta nerabe asko daukaten erakundeetan aukera egongo da ratioak ezartzeko, baita erakunde txiki batzuen artean ordezkari bakarra partekatze ere).
 - a. Etengabeko prestakuntza haurren babesaren arloan (oraindik ez da zehaztu zeintzuk izango diren gutxieneko prestakuntza- eta eguneratze-eskakizunak).
- B. Erakundearen autodiagnostikoa egin HNIBBILOk kirol-arlorako ezartzen dituen eskakizunen egungo betetze-mailari buruz (hainbat tresna daude babesen auto-ebaluazioa egiteko, eta erraz egokitu daitezke gure eremura²), bai eta **kirol-jarduerari lotutako arriskuen azterketa** (kirol-jarduerarako instalazioak/ingurunea, materiala, entrenatzaileen prestakuntza...) eta haur eta nerabeen egoerari buruzko azterketa ere (zaugarritasun-egoerak).
- C. **Sexu-izaerako delituen ziurtagiri eguneratua** eskatu haur eta nerabeekin harreman zuzena duten pertsona guztiei.
- D. **Sentsibilizazio, komunikazio eta gaikuntzarako urteko plana** diseinatu eta ezarri.
 - a. Haur eta nerabe kirolariekin
 - b. Entrenatzaileekin
 - c. Senideekin edo legezko arduradunekin
 - d. Osasun-laguntza emateko langileekin (medikua, fisioterapeuta, psikologoa...)
 - e. Zuzendariekin
- E. **Aldizkako bilerak** egin erakundeko eragileekin, **3. taulan** hautemate goiztiarraren atalean bildu diren kontzientziatzeko galdera kritikoen zerrenda gidari hartuta.
- F. Erakundeko haur eta gazteen babesari lotuta garrantzitsutzat jotzen den **informazio guztia erregistratu** (erakundea utzi duten haur eta nerabeen

zerrenda, zergatik utzi duten, erakundeko eragileren batek adingabeen ongizateari buruz egindako kexak, lesioen erregistroa...). Kasu horretan, interesgarria izango litzateke bilketa zentralizatzea eta horretarako plataforma bat eskaintzea erakundeei, ondoren EAE mailan egin ahal izateko jarraipena eta ebaluazioa; urteko memoria bat eskatuko litzateke erakunde guztiei (memoria hori plataformatik sor liteke automatikoki).

- G. **Lankidetzak-sareak sustatu eta ehundu** beste kirol-erakunde batzuekin eta haurrak babesteko erakundeekin, koordinatuta arituz.
- H. Beste kirol-erakunde batzuekin eta haurrak babesteko erakundeekin esperientziak partekatzeko **topaketetan parte hartu**.

7. BALIABIDE ERABILGARRIAK

EAEEn:

- i. **Zure Taldekoak Gara**; erreferentea da indarkeria-kasuak salatze edo jakinarazteko, eta aholkularitza eta laguntza ematen die ongizatearen kultura sustatzen jarraitze bidean laguntza behar duten erakundeei (<https://www.euskadi.eus/web01-a1berkir/eu/>)
- ii. **Kirolaren Euskal Eskola**; babesaren arloko erreferentziazko prestakuntza eskaintzen die adingabeak babesteko ordezkariak eta haur eta nerabeekin lan egiten duten entrenatzaileei (<https://www.euskadi.eus/zer-da-kirol-euskal-eskola/web01-a2kiesko/eu/>)
- iii. ATHLETIC CLUBen ATERPE programa
<https://athleticclubfundazioa.eus/eu/kirolekoaketaakademikoak/aterpe-programa>
- iv.

Estatuan

- v. **Kirol Kontseilu Gorena**: <https://www.csd.gob.es/eu/haurrenganako-sexu-abusuak-jokoz-kanpo-dago>
- vi. ...

Nazioartean

- *Centre for Child Protection and Safeguarding in Sport (CPSS):* <https://sites.edgehill.ac.uk/cpss/projects/child-abuse-in-sport-european-statistics-cases/>
- *Child Protection in Sport Unit:* <https://thecpsu.org.uk/>
- *Sport save:* <https://www.sportsave.eu/>
- *Voice:* <http://voicesfortruthanddignity.eu/>